


MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA

—
MUSEOKO
IPUINAK



AURKEZPENA

IPUINAK

ZOMORROTZO ETA BERE LAGUNA
EGUZKIA
TIGREAREN ATZAPARKADA
AMAHREN BIDAIA
ALFONBRA MAGIKOA
HONDARTZAKO TIRITA
KUTXA ESKUZABALA
UDAREAREN FESTA
MARTAREN BIRIBILA
LABIRINTO SORGINDUA
URTEBETETZE TARTA

KOORDINAZIOA
FERNANDO ECHARRI IRIBARREN

AUTOREAK
SANDRA ALTIMARI/JANIRE ALCÁZAR/
MARIANGELA VERGARA/FERNANDO
ECHARRI

ITZULPENEA
SARA URDIROZ AGATI

VASILY KANDINSKY
SANS TITRE
[1941]

Liburu honek, Nafarroako Unibertsitateko Museora bisitan etorritako neska mutikoek egindako interpretazioetatik abiatuta sortutako 10 ipuin kontatzen ditu. Kontakizun horietako bakoitza Museoko artelan batean oinarrituta dago, kontatzen duen istorioa ulertzen laguntzen duena.

Ipuin bakoitzak lau alderdi hezitzaile sustatu nahi ditu: emozioa (Bizquerra eta Fredrickson), balioa (Caduto), gaitasun emozionala (Goleman) eta adimen mota (Gardner).

Emozioen dimentsioa ipuinetan sartu da, hauek pertsonen garapenerako eta bizitzarako zein garrantzitsu diren kontuan hartuta. Horrela, kontakizunen bidez, haurrek, egunerokoan sentitutako emozio eta sentimendu desberdinak identifikatu ahal izango dituzte. Sentitzen dena adieraztea askotan zaila suerta daitekela kontutan hartuta, ipuinetako pertsonaien bidez, haurrak, ipuinetan agertzen diren antzeko sententzioak izaten dituztela konturatzen dira. Haurrek haurrari emozio horiek ezagutzeko eta agertzean hauei erantzuten jakiteko aukera ematen dio. Modu honetan, emozio horiek sor daitezketen uneetan adimena eta emozioen kontrola garatzea bilatzen da.

Ipuinekin haurrek balio desberdinak aurki ditzakete, non errealitatea eraldatzen den, bizitzaz, fantasiaz eta irudimenez betetako istorioetan murgilduz. Helburua, istorioak bizitzeko eta protagonistak irudikatzeke aukera izatea da, beraien jakin-mina eta umorearen bidez. Azken batean, beraienak egitea.

Obra artistikoen bidez, haurrak artisten mundura hurbildu ahal izango dira, Museoko lanak ikusiz, barneratuz, beraietara ohituz eta beraietan inspiratzeko aukera izanez, geroago adierazpen plastikoak erreproduzitu ahal izateko. Berezko obrak sortu eta interpretatzeko gai diren artista txikiak bihurtu ahal izateko esperientzia bizi ahal izango dute. Haurrak bere errealitateari zentzua eman nahi dio eta mundu berri batean sartzen saiatuko da; berak konpondu behar dituen zailtasunei aurre egin beharkeo dien mundu batean, non bere adimena erabili behar izango du. Haur bakoitzaren berezitasunaren arabera, adimen bat edo beste erabili ahal izango du. Beraz, ipuinen bidez, haurrek, Howard Gardnerrek proposatutako adimen anitzak identifikatu eta aurkitu ahal izango dituzte.



EMOZIOA
ZORIONTASUA/TRISTURA

BALOREA
ADISKIDETASUNA

GAITASUN EMOZIONALA
AUTOKONTROLA

ADIMEN MOTA
INTRAPERSONALA, KINESTESIKOA

ZOMORROTXO ETA BERE LAGUNA EGUZKIA

Zomorrotxo lur azpian bizi zen eta zoriontsu zen. Bere lur mundua primeran ezagutzen zuen. Baina egun batean argi bizi hori bat zekarren zulo batekin topo egin zuen.

—Zer da argi hain arraro hau? Begirada bat botako dut. Hemendik igo beharko naiz.

Gainazalera heldu zenean, harrituta geratu zen.

Mundu berri bat agertu zen bere begien aurrean eta goialdean sekulako diska hori bat begiztatu zuen.

Argi liluragarri eta bero oso atsegin bat ematen zuen.

—Ze handia zaren, nola berotzen duzun! Ze ongi egoten den zurekin! Nor zara?

—Eguzkia naiz eta izaki bizidun guztien bihotza poztea gustoko dut.

—Ni zomorro naiz. Mundu honetara heldu berria naiz. Nire laguna izan nahi duzu?

—Noski!

Zomorro hain zoriontsu zegoenez dantzatzeko hasi zen. Bere bihotza pozik zegoen.

—Zuk ez al duzu dantzazeko? -Galdetu zion eguzkiari.

—Noski, ni ere pozik nago zure laguna izateagatik, baina oso mantso dantzatzeko dut.

Zomorro dantza eta dantza ibili zen eguzkia desagertzen ari zela konturatu arte. Argia gorriagoa zen. Zomorro dantzatzeko utzi zion.

—Zergatik egiten duzu alde? -Esan zuen ahots triste eta kezkatiz.

—Gaua heltzean atsedean hartzeko ezkutatzeko naiz, baina ez zaitez tristetu, bihar nire lagunekin egoteko itzuliko naizelako.

Zomorrok bere lagun eguzki barik gehiago dantzatu nahi ez zuela erabaki zuen. Atsedean hartzeko bere etxera bueltatzea hobe zela pentsatu zuen eta bihar bere lagun eguzkia ikustera itzuliko zela.

Zomorrok ilunabar oso polit, oso gorri, batean agur esan zion.

Etxera itzuli zen eta tristura hura dantzatu izanaren eta lagun berri bat ezagutzearen zoriontasunera aldatzea erabaki zuen.

Lagun hura orain urrun zegoen, baina urruntasunetik haien adiskidetasuna zabaltzen zuen. Bere lagun hurrengo egunean itzuliko zela badazekien.

**EMOZIOA**

TXERA, MAITASUNA/IKARA

BALOREA

ERRESPETUA, MAITASUNA

GAITASUN EMOZIONALA

ENPATIA

ADIMEN MOTA

INTRAPERSONALA, PERTSONARTEKO

ADIMENA, MUSIKALA, NATURALA

TIGREAREN ATZAPARKADA

Eskolara joaten ginen bitartean, bat-batean tigrearekin topo egin genuen. Zaurituta zegoen eta bere atzaparra odolez beteta.

Zoologikotik ihes egin zuen eta gixajoa lorategian jaso gabe utzi genuen arrasteluarekin moztu egin zen.

Hasieran tigrea beldurtu gintuen, baina begi sakon haiek begiratu gintuzten, maitasuna sentitu genuen eta bihozmin handia eman zigun. Horregatik lagunduko gurela erabaki genuen.

Horren horren politak iruditzen zaizkit tigreak, urrezkoak dirudite. Eta gainera orban beltz hain polit horiek dituzte.

Eskolan esan ziguten jada animaliak errespetatu behar direla, goxo tratatu behar direla haiek lagundu gaitzaketelako.

Min asko egiten zioenez ez zigun hanka sendatzen uzten. Orduan nire anaiak txirula motxilatik hartu eta jotzen hasi zen, lasai zedin. Musikarekin hanka hartzen eta sendatzen utzi zidan.

Arrastelua jaso gabe uzteagatik barkamena eskatu genion.

Eraman zutenean bere aztarna harean ikusi genuen. Segidan bizitza eta askatasun hitzak idatzi genituen. Asko gustatu zitzaigun.

**EMOZIOA**

LASAITASUNA/ NARETASUNA. IZUA/
ZIURTASUN-GABEZIA

BALOREA

IRAUNKORTASUNA

GAITASUN EMOZIONALA

AUTOERREGULAZIOA

ADIMEN MOTA

INTRAPERSONALA, ESPAZIALA,
ESPIRITUALA

AMAHREN BIDAIA

Amah bere amarekin oasi batean bizi zen, non dena zorientasuna eta alaitasuna zen. Baina goiz batean bere ama gaixo esnatu zen.

—Amah hegoaldeko herrira joan beharke zara niretzako sendagai bila. Zure bidaiari oroituz zaitetz, haizea beti iparraldetik datorrela.

Amahk bazekien bidai hura egin behar zuela baina basamortua zeharkatzeak beldurtzen zuen.

Basamortua handia zen eta ez zegoen inor lagun zezakeenik. Pixka bat ibili ondoren Amah galdu egin zen, zer egin jakin gabe. Desorientatuta zeogen eta oso urduri jarri zen. Horrek ez zizkion aurrera jarraitzeko gogoak kentzen. Nora joan ez zekienez, eseri egin zen.

Lasaitzeko eta pentsatzeko beharra zuen. Lasaitu eta irtenbide posibleetan pentsatzen hasi zen. Laguntza behar zuenez otoitz egiten hasi zen. Tupustean, haize bolada bat putz egin zuen, orduan, amak haizeari buruz esandakoa burura etorri zitzaion.

—A, haizea jarraituko dut.

Haizea noizbehinka gelditu egiten zen eta berriz putz egin zezan itxoin behar zuen. Baina berak itxoiten zuen, aurrerantz jarraitu behar zuela bazekielako.

Amahk haizearengatik eramaten utzi zen, berataz fidatu eta herrira heldu zen, non bere amak behar zituen sendagaiak erosi zituen eta horri esker bere ama sendatu zen.



EMOZIOA
JAKIN-MINA/KEZKA BALOREA
BAKEA
GAITASUN EMOZIONALA
MOLDAGARRITASUNA
ADIMEN MOTA
PERTSONALEKO ADIMENA

ALFONBRA MAGIKOA

Bakea bere aitonaren etxeko ganbaran arakatzen zegoen alfonbra gorri bitxi bat aurkitu zuenena. Lurrean zabaldu eta gainean eseri zenean, supituki alfonbra mugitu eta hegan egiten hasi zen.

—Eten zaitez! Zertan zabilta? -Esan zuen kezkatuta.

Jolastea zen alfonbrak nahi zuen gauza bakarra eta ez zuen dues erantzun, baina lehitoik atera eta odeien artean hegan egin zuen.

Bakea alfonbratik eroriko zelakoan arduratuta zeogen, baina leku hurrun horiek begiztatearen jakin-mina zeukan.

Bapatean kurrillo bat agertu zen:

—Zu nola deitzen zara?

—Bakea deitzen naiz.

—Ze izen polita. Hau bai kasualitatea, mundu osoan zehar bakearen enbaxadore naiz.

Munduko oro elkar ulertu behar dute. Mundu guztiarekin hitz egin behar da.

—Kolore asko ikusten ari naiz kurrillo. Erakutsiko dizkidazu?

—Bai, noski. Hura itsasoaren urdina da. Beste hori basoaren berdea. Eta hura basamortuaren horia da.

—Orain alde egin behar dut. Banoa hegan Hiroshimara, bakearen hirira.

Bakea bidaiarengatik nekatuta zegoen, baina pozik eta lasai ikusitakoaren odorioz, horregatik alfonbrari berriro etxera eramateko eskatu zion.



EMOZIOA
DIBERTSIOA/ AMORRUA

BALOREA
LANA

GAITASUN EMOZIONALA
KONTZIENZIA EMOZIONALA,
AUTOEBALUAZIO EGOKIA


ADIMEN MOTA
INTRAPERSONALA

HONDARTZAKO TIRITA

Hondartza hura oso dibertigarria zen. Nire familia egunero joaten zen bertara eta gure hareazko gaztelu handia egitera jolasten genuen. Lan asko kosta egiten zitzaigun, baina hau merezi zuen. Gazteluak hiru dorre oso handi zituen eta babesteko harresi handi bat. Ederra zen

Baina egunero, itsasaldia igotzean, gaztelua desagertu egiten zen eta berriz eraiki behar genuen. Hasieran amorru ematen zigun eta pixka bat haserretzen ginen, baina egunak pasata gaztelua eraikitzen hain ongi pasatzen genuen ez zitzaigula axola berriz hasteak.

Baina egun batean, hareea eskuekin hartzean... Ai! Beatza oskol apurtu batekin moztu egin nuen. Ze mina! Odola atera zitzaizan eta ikaratu egin nintzen, baina hain sakona ez zelaz konturatu nintzen, hortaz, larritu behar ez nintzela pentsatu nuen. Mina desagertzen ari zen. Ez zen larria. Gainera, konturatu gabe, hondartzak tirita bat egin zuen niretzat eta hatzean jarri ninduen.



EMOZIOA
ITXAROPENA/FRUSTRAZIOA

BALOREA
ESKUZABALTASUNA

GAITASUN EMOZIONALA
BERRIKUNTZA

ADIMEN MOTA
INTRAPERSONALA, PERTSONARTEKOA,
LINGUISTIKOA

KUTXA ESKUZABALA

Aingeru haserre esnatu zen bere ogitartekoa galdu zuelako. Haren bila ibili zen eta larri zebilen ikastolara berandu helduko zelakoan. Tupustean, hitzegin zion kaxa eskuzabal batekin topo egin zuen:

—Kaixo Aingeru. Zer gertatzen zaizu?

—Ogitartekoagaldudut.

—Itxoin, itxoin, ez zaitut ulertzen, mantsoago hitzegin ezazu mesedez.

—Bale, bale. O-gi-tar-te-ko-a gal-du dut.

—Labirinto honen barnean aurki dezakezu nahi baduzu.

Kutxa ireki zen eta egundoko labirinto bat agertu zen.

—Bale, baina nik bakarrik ezin dut aurkitu, galdu naiteke.

—Ez kezkatu, nire lagun sugeak lagun ahalko zaitzake.

Kutxa ireki zen eta ogitartekoa aurkitzen lagundu zuen suge bat atera zen. Baina Aingeru oraindik kezkatuta zegoen.

—Zer gertatzen zaizu?

—Ezer ez, berandu egin zaidala eta orain eskolara berandu helduko naiz.

—Izan itxaropena, ez da ezer gertatzen. Oraintxe bertan tornado bat segidan eramango zaitu eskolara.

Kaxa berriz ireki zen eta tornado indartsu batek Angel eskolaraino hegan eramane zuen.

—Hara! Hegan nabil!

Aingeru garaiz iritsi zen klasera eta kutxaren eskuzabaltasunaz konturatu zen. Orain berak, kutxak bezala, besteen arazoak konpontzera lagundu nahi zuen.



EMOZIOA
ESKERTASUNA/MESPRETUUA

BALOREA
LANKIDETASUNA

GAITASUN EMOZIONALA
KOMUNIKAZIOA (ENTZUTE AKTIBOA)

ADIMEN MOTA
PERTSONARTEKO ADIMENA

UDAREAREN FESTA

Udare oso lanpetuta zegoen bere urtebetetze festa prestatzen. Bera berdea izanik, bere lagunak ziren fruta berdeak gonbidatzea erabaki zuen; Kiwia, Meloia, Sagarra eta Lima.

Bere laguna Sagarrak prestakunzterekin laguntzera joan zen. Gonbidatuen zerrenda ikustean ea zergatik soilik fruta berdeak gonbidatu zituen galdetu zion eta ez bestefrutarik. Udareak berdea bere kolore gustukoena zela erantzun zion. Sagarrak beste koloreetako frutak urtebetetze festara joan nahi zutela esan zion eta garrantitsua zela jende guztia gogoan izatea.

Sagarrak Udareari munduan fruta asko gehiago daudela erakustea erabaki zuen eta ez berde kolorekoak soilik, eta dibertigarria izango litzatekeela guztiekin festa bat egitea.

—Ez kezkatu, zure festa nik prestatuko dut .

Sagarrak bere lagun fruta guztiak bildu zituen; Banana, Laranja, Anana, Mertzika eta Marubi, denen artean prestatu zezaten.

Festaren egunean Udare oso pozik zegoen eta Sagarrari eta fruta guztiei asko eskertu zien dena prestatu izana. MILA ESKER!!

Festa izugarria izan zen. Oso ondo pasa zuten. Frutak gogobete zeuden denen artean festa prestatu zutelako.



EMOZIOA
BESTEENGATIK INSPIRATUTA SENTITZEA/
JELOSKORTASUNA

BALOREA
KOHERENTZIA

GAITASUN EMOZIONALA
OPTIMISMOA

ADIMEN MOTA
INTRAPERSONALA,
PERTSONARTEKOA, ESPAZIALA

MARTAREN BIRIBILA


Marta mundua ikustera atera nahi zuen sagutxo gogotsua zen eta, hala esaten zien bere lagunei. Bera saiatu egiten zen, beti zoriontsu, baina hasierako puntura itzultzen zen beti biribilean ibiltzen zelako.

—Jo, ze amorrua. Mundua ikusi nahi dut, baina ez naiz inoiz urrun joaten edo lekuren bat ikusten.

Hegaztietan penstatzen zuen, beti hegan egiten. Edonora joaten ziren leerro zuzenean. Bera atera egin nahi zuela eta aterako zela esaten zuen.

Pazientzia askorekin leerro zuzenean ibiltzen ikasi zuen. Oin bat bestearen atzean, oin bat bestearen atzean...

Ongi, Marta jadanik ez zen biribilean ibiltzen. Lortuko zuela bazekien. Oso pozik jarri zen. Orain mundua ikus zezakeen.



EMOZIOA
BELDURRA/GOGO BETETZEA

BALOREA
AUSARDIA

GAITASUN EMOZIONALA
NORBERAREN EZAGUTZA

ADIMEN MOTA
INTRAPERSONALA,
LOGIKO-MATEMATIKOA

PABLO PALAZUELO
EL NÚMERO Y LAS AGUAS I
(1978)

LABIRINTO SORGINDUA

Kondairak Beldurti izeneko ume bati buruz hitzegiten du, ausarta izan nahi zuena. Beti beldur zebilen eta horrek ez zion zoriontsu izaten uzten.

Bere lagunek labirinto sorgindu baten barruan iturri Ausarta bat zegoela esan zioten. Iturriak bere beldur guztiak kenduko zizkion, baina arrisku askoz ingurutatuta zegoen.

Abiatu behar zenean, bere aitonak eskularru magiko batzuk oparitu zizkio, arriskuen aurka lagundu diezaioten, aholku batekin: eskuinekoak dena erregaliz bihurtzen du eta ezkerrekoak atea irekitzen ditu.

Labirintoan sartzean arantzaz josita zegoelaz konturatu zen laister. Dena erregaliz bihurtzen zuen aitonak emandako eskularruaz oroitu zen. Jarri eta...
—Ai!!! Sastatu egin naiz.

Nahastu egin zen. Eskularrua gaizki jarri eta ezkerrekoarekin ukitu zuen.

Zu ba al dakizu ezkerreko eskua non dagoen?

Beldurtik eskuineko eskularrua jarri eta arantzak erregaliz bihurtu ziren.

Handik gutxira harrisi borobil batera heldu zen. Ezkerreko eskularruaz oroitu zen, atea irekitzen zituena. Ukitzean, behecala, ate bat agertu eta ireki egin zen.

Orduantxe loguraren basoa agertu zen. Logure ikaragarria zeukan. Orain Beldurtik zure laguntza behar du.

Zer egingo zenuke ohiana zeharkatzeko lo hartu gabe? Beldurtiri konta diezaziozu. Zorionak, lortu duzu, Beldurtik logurea garaitu du!!

Beldurti oinez jarraitu zuen bigarren harrisi batera heldu zen arte. Beldurtik ezkerreko eskularruarekin ukitu zuen. Baina oraingoan asmakizun bat zeukan ate bat agertu zen.

Zergatik 3 eta 3 ez dira 6, 8 baizik?

—A, badakit!

Beldurti 8 bat marraztu zuen hiruekin eta atea ireki egin zen.

Behin barruan zegoela, labirintoaren erdian iturri Ausartarekin topo egin zuen. Edan egin zuen, baina ez zuen ezer somatu ausardia iturriaren ez baitzegoen, bere barnean baizik.



EMOZIOA
HARRIDURA/ERRUDUNTASUNA

BALOREA
ARDURA, ESFORTZUA

GAITASUN EMOZIONALA
MOTIBAZIOA

ADIMEN MOTA
INTRAPERSONALA,
PERTSONARTEKO ADIMENA

URTEBETETZE TARTA

Villatuerkan Tornillez familiak amonaren urtebetetzerako festa ikaragarri bat prestatzen ari zen. Denak lanpetuta zeuden; aitak eta amak etxea apaintzen zuten eta Cromo eta Plata txikiek urtebetetze tartaz arduratzen ziren.

Cromok eta Platak osagai asko prestatu zituzten. Apaintzeko lan handia egin ondoren labean sartzeko prest zegoen Platak, laguntzarren, nahi gabe lurrera bota zuenean.

Plata gaizki sentitu zen. Eta Cromok kontuz ibili behar zela eta ardua gehiago izan behar zuela esan zion. Horregatik orain burdindegira joan behar zen apurtutako gauzak erostera.

Plata erosketak egitera joan zen. Arduratsua izan nahi zuen, baina nahi gabe, bidean zilarrezko ibai batekin arreta galdu eta erosketak egitea ahaztu zitzaion.

Konturatu zenean jada berandu zen eta dendara korrika atera zen. Baina kezkarik ez, dendara heldu baitzen mugaz itxi baino lehen eta begar zuen guztiarekin etxera itzuli zen.

—Denbora asko behar izan duzu. Esan zion torloju aitak. Kezkatuta genbilen.

—Barkatu, despistatu egin naiz, erantzun zuen berak.—Errudun sentitzen zen arreta galdu izanagatik. Baina bere akatsa zuzentzarren —Dena ekartzen dut. —esan zuen.

—Oso ondo. Ahalegindu behar gara eta bizkor izan amona heldu baino lehen prest egon dadin. Egiteko gai zarete?


Primerako tarta atera zen...


●●● Museo Universidad de Navarra

MUSEO.UNAV.EDU

KOLABORATZAILLEAK

 **FUNDACIÓN**
CAJANAVARRA

 **Fundación "la Caixa"**

 **Universidad**
de Navarra | **INSTITUTO DE**
IDIOMAS